

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

PEÑACERRADA-URIZAHARREKO UDALA

Trakzio Mekanikoko ibilgailuen gaineko zergaren 2026ko errolda jendaurrean jartzea eta dirubilketa aldiaren berri ematea

Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko udal Zergaren 2026ko errolda onetsi denez gero, jendaurrean jartzen da, interesdunek egoki deritzeten erreklamazioak aurkez ditzaten. Horretarako hamabost egun baliodun izango dituzte iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Era berean zergaren dirubilketa epeen berri ematen da:

A) Borondatezko epea: 2026ko maiatzaren 1tik uztailaren 1era.

B) Betearazte aldia: 2026ko uztailaren 2tik aurrera betearazte aldiari emango zaio hasiera, eta betearazte errekaruak, nola premiamendu murriztukoak hala arruntekoak, ordaindu beharko dira, Arabako zergen otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak adierazitako epeetan.

Guztiek jakin dezaten argitaratzen da.

Peñacerrada-Urizaharra, 2026ko martxoaren 18a

Alkatea

ALFREDO VICUÑA IBÁÑEZ